Elkarkidetza egunez egun hazten ari da, gero eta instituzio berri gehiagok parte hartzen dutelako euskal instituzio guztien BGAEak pixkanaka-pixkanaka eratzeko abian jarri dugun proiektuan. Azken urtean, Bizkaiko Lurralde Historikoak ekarri ditu instituzio berri gehien; esate baterako, Euskalduna Jauregia. Etengabeko hazkuntza da Elkarkidetzaren bermea. Izan ere, epe laburrerako espekulazioak alde batera utzi eta epe luzearen alde egiten du. Hori dela eta, mozkinak gehitu ditu azken urteotan.

Gaur egun, ordea, beste arlo batean dago gaurkotatuta. Azaroan, Diputatuen

Kongresuak Pentsio Planei eta Fondoei buruzko Legea aldatu duenez, gure arrazoiak egiaztatu egin dira. Hemendik aurrera, instituzio publikoek ekarpenak egin ahal izango dituzte Mutualitateetara. Guri dagokigunez, Aurreikuspen Erakundeetara egin ahal izango ditugu ekarpenak. Bestetik, Gizarte Segurantzako eta Lan Aurreikuspenetako Sistemetako pentsioak metagarriak direla auzitan jartzen zuen zalantza argitu egin da. Legeak berariaz adierazten du gurea bezalako sistemaren bidez ordaindutako pentsioak ez direla metagarriak.

www.elkarkidetza.net

© Elkarkidetza BGAE.  
e-mail: elkarkidetza@elkarkidetza.net  
ARABA. Ramón y Cajal 7 y 9. 01007 VITORIA-GASTEIZ. Telf.: 945.14.11.41  
BIZKAIA. Gardoki, 2 bajo. -48008 BILBAO Telf.: 94.415.55.78  
GIPIZKOA. San Martín, 2-20005 DONOSTIA. Telf.: 943.43.02.56

## Bizkaian, 15 instituzio berri egin dira Elkarkidetzako kide

Urte hasieratik, Bizkaiko lurraldean sortu dira kide berri gehien. Hain zuzen ere, Elkarkidetzan sartu diren 10 kide berrietatik, zazpi kide dira Bizkaikoak. Batez ere, bi arrazoiengatik gertatu da hori:

### Euren konfiantza Elkarkidetzan jarri duten instituzio berriak kide egin dira etengabe.

Urte hasieratik, 15 instituzio berri egin dira kide, eta guztira, 260 bazkide ekarri dituzte.

- Bilboko Hiltegia, A.B.
- Bilbao Iniciativas Turísticas, S.A.
- Arakaldoko Udala
- Euskalduna Jauregia, S.A.
- Arrankudiagako Udala
- Basalan, S.A.
- Foruko Udala
- Rekaldeko Erakusketa Aretoa, S.L.
- Bermeoko Urigintz Barriztatze Alkartea, S.A.
- Bikakobo-Aparcabisa, S.A.
- Ereñoko Udala
- Getxoko Kultur Aretoa
- Arratzuko Udala
- Getxoko Jesusen Bihotza Adinekoen Egoitza
- Mallabiko Udala

### Langileen artean egindako informazio kanpainen ondorioz, kide diren instituzioetako bazkide berriak sartu dira Elkarkidetzan.

Horretarako, ezinbestekoa izan da instituzioen laguntza eta langileen sailek emandako erraztasunak, ahalik eta laguntza handiena eman dutelako kanpaina horiek garatzeko.

Honako instituzio hauetan gehitu da bazkide kopurua:

- Bizkaiko Foru Aldundia (180 bazkide berri)
- Bilboko Udala (91)
- Etxez Etxeko Laguntzarako Foru Institutua (62)
- Basauriko Udala (26)
- Portugaleteko Udala (26)
- Getxoko Udala (21)

## Galderak eta Erantzunak

### Soldatarik gabeko baimena hartzen badut, instituzioak nire ordezkotzatzen jarraitu beharko du?

**Erantzuna:** Hilabetetik beherako soldatarik gabeko lizentziak eta baimenak hartuz gero, ez dira kontuan hartuko eta aldi horretako ekarpen osoa onartu eta sartuko da.

Soldatarik gabeko baimena hilabetetik gorakoa bada, baja eta alta hilabeteetan lan egindako aldia hartuko da kontuan. 15 egun edo gehiago lan egin ez gero, ekarpen osoa ordaindu behar da banaketa proportzionalik gabe. 15etik behera egun lan egin ez gero, ordea, ez da ekarpenik egingo.

### Nola sartu behar dira kuotak, eta zer gertatzen da ordaindu ezean?

**Erantzuna:** Ordaindu beharreko ekarpenak Erakundearen sartuko dira mugaez gertatzen. Instituzioak langileari kenduko dio ekarpena dagozkion nominetatik.

Ekainean eta abenduan, hilero egiten diren ekarpenak beste-ko ekarpen gehigarria egingo da, eta aurrekoekin batera sartuko da.

Baja hartu ezean, langileak eta instituzioak bi hilabeteetan ekarpenak ordaintzen ez badituzte, arriskuagatik, elbarritasunagatik eta heriotzagatik prestazioak eten egingo dira, Elkarkidetzak estaldura horien indarraldia justifikatzen duten salbuespenezko inguruabarrak onartzen ez baditu.

### Nolako tratamendua dute kotizazioek, amatasunagatik baimena hartuz gero?

**Erantzuna:** Oro har, hiru aukera daude, instituzioaren abiaren arabera:

a) Instituzioak ordainketa bere gain hartzen duenez, ez dio egoeraren berri ematen Elkarkidetzari.

b) Gainerako langileei bezala, instituzioak dagokion zatia ordaintzen dio emakume langileari, eta emakume langileak bankuko helbideraketaren bidez ordaintzen du bere kuota. Halakorik gertatuz gero, instituzioak Elkarkidetzari eman beharko dio ordaintzeko modu horren berri.

c) Instituzioak Erakundeari ematen dio bajaren berri eta ekarpenak eten egingen dira. Emakume langileak baimena amaitzen duenean, atzerakinak ordaintzen dira.

### Web orria ikusi dut eta informazioa aurkezteko modu ezin egokiagoa da. Hala ere, oso zaila egingen zait nire datuak eskuratzea.

**Erantzuna:** Galdera honek aukera ezin hobea eskaintzen digu, web orria ezarri genuenetik, antzeman ditugun ohiko bi arazoak konpontzeko:

1. [www.elkarkidetza.net](http://www.elkarkidetza.net) helbidea tekleatu ondoren, pantaila zuri geratzen da:

Flash Player programa eguneratuta ez izateagatik gertatzen da hori. Arazo hori konpontzeko,

[www.macromedia.com/es/downloads/](http://www.macromedia.com/es/downloads/) helbidera joan eta Macromedia Flash Player loturan sakatu.

2. Identifikazio pantailara iritsi eta erabiltzailea zein gakoa tekleatu ondoren, ez da daturik ikusten:

Internet Explorer nabigatzailearen bertsioagatik gertatzen da arazo hori. Gutxienez, 5.5 bertsioa izan behar da. Bertsio hori lortu ahal izateko, [www.microsoft.com/windows/ie\\_intl/es/](http://www.microsoft.com/windows/ie_intl/es/) tekleatu behar da.

"Azken jaitsierak" laukiaren azpian daude loturak. 6.0 bertsioa erabiltzeko, Windows 98 izan behar da gutxienez. Windows 95 izanez gero, ordea, 5.5 bertsioa jaitsi beharko da.

Dena dela, arazorik baduzu, gure bulegoetara deitu edo posta bidali, eta ahalik eta lasterren erantzun zuzena.



## Inbertsioak: Zalantzak bere horretan jarraituko du

Ekitaldiaren zati handiena igarotakoan, finantza merkatu nagusien bilakaerari buruzko iruzkina egin ohi da, bilakaera horrek kudeatutako ondarean izan duen eragina azaltzeko. Oro har, azalpen horiek oso originalak ez badira ere, nolabaiteko interesa dute Pentsio Fondoetako edo BGAeetako partaideentzat. Izan ere, 20 edo 30 urte barru, pentsioa jasoko duten hartzekodunek jakin badakite aldi zehatz bateko emaitza onek edo txarrek ez dutela eragin handirik izango azken emaitzetan, epe luzerako inbertsio politika egokiak eta kostuen kontrol egokiak sortutakoekin alderatzen baditugu.



Gaur egungo burtsaren hondamendia ikaragarria izan da, 2000. urteko gehienekoak kontuan hartuta, balioaren galera %60koa izan delako ia-ia. Hori dela eta, hausnartu beharra dago, epe laburrerako, epe ertainerako edo, gure kasuan bezala, epe luzerako aurreztaile guztiek kezkatuta egon behar dutelako eta arrazoi osoz. Burtsa finantza arloko protagonista nagusia da, merkatuen bilakaerari buruzko eguneroko azalpenen ondorioz. Horrez gain, balore batzuk izugarri eta etengabe jaitsi direnez, esamesa ugari sortu dira, eta etsigarriak dira oso, etorkizun ekonomikoari begira. 1999. urtearen amaieran eta 2000. urteko zati handi batean, enpresetan aurreikusitako mozkinen kotizazioen igoerak

justifikatzen ez bazituzten, gaur egungo ezkortasunak ere ez du seguruenik erabateko justifikaziorik, ekonomiaren benetako egoera kontuan hartuta.

### Egoera ekonomiko zaila

Egoera ekonomiko eta politiko zaila gutxietsi gabe, 1997. urtetik sortutako gainbalioak galdu egin direnez, analisten sinesgarritasunak behera egin duenez eta enpresa kudeatzaile ospetsuen desprestigioak enpresa garrantzitsuetan eragin kaltegarria izan duenez, zalantza handiak sortu dira inbertsiogileen artean. Hori dela eta, asko eta asko ez dira merkatuan jarraitzeko gai izan, eta kotizazioen jaitsiera larriagotu egin da.

Epe luzerako ondarea kudeatzen

**Burtsa protagonista nagusia da, merkatuen bilakaerari buruzko eguneroko azalpenen ondorioz**

**Hondamenezko eszenatokiak alde batera uzten ditugu, ondo kudeatutako enpresen biziraupenean dugu konfiantza**

dugunez, etorkizunean zer gertatuko den ere ez dakigu Elkarkidetzan. Hondamenezko eszenatokiak alde batera uzten ditugu, ondo kudeatutako enpresen biziraupenean dugu konfiantza, bai eta epe ertain zein luzerako ondareari errentagarritasuna ateratzeko dugun gaitasunean ere. Izan ere, akzioen merkatua ez ezik, errenta finkoko merkatuak, diru inbertsioak, higiezinak eta aktibo sofistikatuagoak ere badaude, inbertsioa zabaldu ahal izateko.

### Zigortuak

Zabalkuntzari esker, emaitza positiboak lortu genituen 2000. eta 2001. urteetan, hau da, +%5,7. Burtsek izandako galerak, ostera, %28koak izan ziren.

2002. urtearen gaineratikoan eta, seguruenerik, 2003. urtean ere, zalantzak bere horretan jarraituko du. Izan ere, errenta aldagarriak hobera egingo balu ere, errenta finkoko kotizazioek sufritu egin ahal izango lukete hasieran.

Bi urtean, finantza merkatuek argi eta garbi utzi dute ez dagoela edonoren esku Burtsan dirua irabaztea. Etorri berriek eta oinarriko zabalkuntza, segurtasun zein errentagarritasun irizpideak ezarri ez dituztenek zigor gogorra jasan dute.

Aipatutako abiaburuak alde batera utzi gabe, errenta finkoko zein errenta aldagarriko inbertsioetara hurbiltzen gara Elkarkidetzan, aberastasuna sortzen laguntzeko asmoz. Dena dela, ez dugu epe laburrerako espekulazioetan parte hartzen. Poz handietatik eta larregizko ezkortasunetatik aldentzen gara, eta kudeaketa profesionalaren bidez, %5 - %8 arteko batez besteko errentagarritasuna lortzen ahalegintzen gara hurrengo urteei begira.

José Carlos Garay

## Gizarte aurreikuspena Erresuma Batuan

Eredu anglosaxoiak lan sistema osagarriak sustatzen ditu, eta lan bizitzaren amaieran pentsio duina bermatzeko adibideetako bat da Europako Erkidegoan.

Erresuma Batuko gizarte politika gehienak zerga orokorren bidez finantzatzen dira. Oinarrizkoak edo hondarrezkoak dira, jakintzat jotzen delako norbanakoak ahalik eta ahalegin handiena egingo duela, ongizatea bere kontura lortzeko orduan.

1978. urtera arte, ez zen egon bigarren mailako derrigorrezko pentsioen zuzkidurarik, pentsio profesionalen sektorea ondo ezarrita bazegoen ere. Azken 30 urteotan, sistema mistoa ezarri da Erresuma Batuan. Horren ondorioz, finantzaketa publikoko zein pribatuko zenbait iturriren bidez eskuratu ahal den bigarren maila gehitzen zaio estatuko oinarrizko erretiro pentsio unibertsalari.

Laurogeiko hamarkadatik egindako aldaketek bigarren mailako zuzkidura sustatzea izan dute helburu, estatuaren eta norbanakoaren erantzukizunen arteko oreka onargarria ezartzeko, eta iturriko zerga atxikipenagatiko zuzkiduraren zein fondoak alde aurretik metatzen dituen zuzkiduraren arteko oreka lortzeko.

### Estatukoa ez den zuzkidura

Estatuko Gizarte Segurantzaren plana ez ezik, estatukoak ez diren pentsio osagarrien sistema ere badago, eta pentsio gehienak fondoak metatzen dituen oinarriaren gainean kudeatzen dira. Honako pentsio plan hauek daude sistema horietan: enplegu emaileek edo enplegu emaileen taldeek euren langileentzat ezarritako pentsio plan profesionalak (lan planak) edo finantza erakundeek (batez ere aseguru etxeek) ezarritako norbanako pentsio planak. Azken horiek Erresuma Batuko edozein langilerentzat edo autonomorentzat daude zabalik. Plan horien arabera ordaindutako pentsioek estatuko Gizarte Segurantzaren planeko pentsioak osatzen dituzte. Dena dela, estatuko pentsioak ere ordezkatu ahal dituzte.

Funtsean, pentsio profesional edo lan pentsio mota bi daude Erresuma Batuan: "prestazio mugatuko" planak eta "kotizazio mugatuko" planak. Lehenengoek soldatarekin dute zerikusia, eta oro har,

zatik berezi baten gainean zenbatesten dituzte pentsioak; esate baterako, onuradunaren amaierako soldataren 1/60 edo 1/80 zerbitzuan egondako urte bakoitzeko. Horrez gain, aldaketa aktuarialak bermatzen dituzte enpresek. Zergak direla eta, guztira, ez da izaten amaierako soldataren 2/3tik gorakoa. Askoz ere bitxiagoak dira "batez besteko soldatako planak". Bertan, onuradunak lan egin bitartean izan dituen diru-sarreraren zatiki berezian oinarritzen da pentsioa.

Ekarpen mugatuko planek ez dute alde aurretik zehazten pentsioen maila. Onuradunaren diru-sarreraren gainean zehaztutako ehunekoan oinarritzen dira kotizazioak. Erretiroan urteko bat lortzeko erabiltzen dira kotizazio horiek eta metatutako inbertsioak. Norbanako pentsio planak kotizazio mugatuko planak dira.

### Estaldura eta prestazioak

1991n, langile guztien %48 inguru -10,7 milioi lagun- ziren lan plan bateko bazkideak. Proporzio horrek duela 40 urtekoa bikoizten zuen. Laurogeiko hamarkadatik, joera beheranzkoa bazen ere, afiliazioak zertxobait gora egin du azken zenbakien arabera. Duela gutxi argitaratutako txostenak egiaztatu zuenez, erretiratzeko adina zuten gizonen %81 eta emakumeen %42 plan horietako bateko bazkide izan ziren noizbait. Norbanako pentsioak 1988an agertu ziren, eta 1995-1996rako, 5,4 milioi bazkide zituzten. Ekitaldian, diru-sarrerarik izan ez zuten 1,9 milioi onuradun izan ezik, 3,5 milioi inguru lagunek egin zituzten ordainketak norbanako pentsioan. Zenbatespenen arabera, gutxi gorabehera, langile autonomoen erdiek -1,8 milioik- dituzte norbanako pentsioak. 1996. urtearen amaieran, Erresuma Batuan, 830.000 milioi inguru libera inbertitu ziren (laneko eta norbanako) pentsio fondoetan.

1995-1996an, pentsiodunen bitik gora laurdenek (%68) zuten bigarren mailako zuzkiduraren bat. Orain, %66k jasotzen dituzte pentsio profesionalak,

**Azken urteotan,  
sistema mistoa  
ezarri da  
Erresuma Batuan**

**Ekarpen mugatuko  
planek ez dute alde  
aurretik zehazten  
pentsioen maila**

**1995-96an, pentsiodunen  
bitik gora laurdenek  
zuten bigarren mailako  
zuzkiduraren bat**

eta jasotako batez besteko zenbatekoa 78,70 liberakoa da asteko, hau da, 1979ko zenbatekoaren bikoitza. Horren ondorioz, pentsiodun gutxiago daude estatuko prestazioen menpe bakarrik. %14k bakarrik ez du bestelako diru-sarrerarik, 1979ko %23ren aldean. Horrez gain, orain, pentsiodun gutxiago daude errenta banaketaren %20 baxuenean, biztanle guztiei begira. 1979an, proporzioa pentsiodun guztien erdikoa bazen ere, pentsiodun guztien laurdenekoa da gaur egun. Zenbaki horiek adierazten dutenez, norbanakoei zuzkidura pertsonala egin behar dute, laneko pentsio planen, pentsio plan profesionalen eta fondoak metatzen dituzten pentsio planen bidez. Horrela, bada, ez dira txirotasunean eta menpetasunean eroriko erretiratzen direnean.

Andoni Urruela



Iturria

**David Stanton.**

*Erresuma Batuko Gizarte Segurantza Saileko Zerbitzu Analitikoaren Ataleko zuzendaria. Gizarte Segurantzaren etorkizuna. Stockholmeko biltzarra, 1998ko ekainaren 29tik uztailaren 1era.*

## Pentsio planak Europan

Biztanleak gero eta zaharragoak direnez, oso kezkatuta daude Europako Batasuneko (EB) herrialde guztiak, eta gainera, sekulako erronka da eurentzat. Gizarte Segurantzako sistema publikoen etorkizunak aldaketa egokiak behar ditu, Europako gizarte eredu kolokan ez jartzeko eta pentsio sistemen epe luze-rako bideragarritasuna bermatzeko.

EBko estatu kideek aldaketa prozesuak jarri dituzte abian, pentsio sistemen gaitasunari eusteko. Horrela, bada, gizarte helburuak bete ahal izango dituzte, eta horretarako:

**Lehenengoa:** Diru-sarrera seguruak eta egokiak bermatu behar dituzte, pentsiodunen osasun eta zainketa premiak epe luzean estali ahal izateko.

**Bigarrena:** Pentsio sistemen finantza bideragarritasuna bermatu behar dute, epe luzean finantza publikoen oreka arriskuan ez jartzeko, zahartzapen demografikoaren eraginez.

**Hirugarrena:** Gizartearen eta pertsonen premiak aldatzen direnean, pentsio planek egoera horri erantzuteko duten gaitasuna hobetu behar dute. Horrela, bada, lan merkatuko malgutasuna zein aukera berdintasuna hobetu egiten dira eta norbanako premietara egokitzen dira pentsio sistemak.



Horretarako, Europako Batzordearen gomendioen arabera, abiaburu horiek zehaztu egin behar dira. Era berean, argi eta garbi adierazi du banaketa bidezko derrigorrezko sistema publikoan oinarritutako lehen zutabea erabili behar dela. Bigarren zutabea negoziazio kolektibo bidezko lan sistema osagarrian eta kapitalizatuan oinarritzen da. Hirugarren zutabea, ordea, norbanako sistema osagarrian eta kapitalizatuan oinarritzen da.

Adibide adierazgarrien artean, Erresuma Batuak, Alemaniak edo Irlandak pentsio osagarriak sartu nahi dituzte ETEetan. Horrela, lehenengo mailako sistema publikoek porrot egingo balute, derrigorrean egin beharko liriteke ekarpenak bigarren mailako sistema kapitalizatuera. Frantzia, esate baterako, 70eko hamarkadatik aurrera, ekarpenak egin behar dira sistema osagarrietara; erregimenak, dena dela, banaketa-koak dira.

Oraindik ere, Europako erretiro sistematik urrun gauden arren, gero eta indar handiagoz sortzen ari da eztabaida. Gaur egun, pentsioak koordinatzeko prozesua jarri da abian EBn, aldatzen ari den gizartearen premietara egokitzeko.

Jon Zabalia



## Europako Sektore Publikoko Pentsio Erakundeen Elkarte (AEIRSP)

Urriaren 24an eta 25ean, Erroman egin zen Europako Sektore Publikoko Pentsio Erakundeen Elkartearen 12. biltzarra, eta hamaika herrialdek parte hartu zuten bertan.

Lanean dauden hamazortzi milioitik gora funtzionarioen eta 9,7 milioi pentsiodunen oinarritzeko sistemak eta sistema osagarriak daude Elkarte horretan.

Elkarkidetzak Europako elkarte horren bazkide sortzailea da, eta bete-betean parte hartzen du elkartearen jardueretan. Gure Erakundeak 1994. urteko biltzarra antolatzen zuen Donostian, eta seguruenik, 2005eko Biltzarra ere antolatuko dugu.

Oraingoan, Elkarkidetzak Gobernu Batzordeko eta Zuzendaritza taldeko zenbait kiderekin joan zen Erromara.

Alemaniko, Belgikako, Espainiako, Finlandiako, Frantziako, Holandako, Italiako, Erresuma Batuko, Portugaleko, Suediako eta Suitzako pentsio erakundeek "Elkartasuna eta gizarte kohesioa, pentsio ingurune aldagarrian" biltzarreko egitarauari buruz eztabaidatu zuten.

Funtsean, honako gai hauek jorratu zituzten: alde aurretiko erretiroa, sektore publikoko zein sektore pribatuko pentsio sistemen baterakuntza eta pentsio sistemetako elkartasunari buruzko zenbait alderdi.

AEIRSPko bazkideei buruzko datuak:

Lanean dauden funtzionarioak	..18.275.382
Pentsiodunak	.....9.798.194
Babestutako lagunak guztira	..28.073.576

## Zenbait sistema mota

Pentsio sistemak hiru mailatan antolatu ohi dira. 1. mailan, Gizarte Segurantzako sistema publikoak daude, eta 2. eta 3. mailatan, sistema osagarriak.

**1. maila:** Erretirorako, elbarritasunerako eta heriotzarako oinarritzeko araubidea da, eta oro har, derrigorrean parte hartu behar da bertan. Gehienetan, banaketa ereduaren bidez finantzatzen dira sistema horiek. Horren arabera, estatuak bermatutako pentsiodunen prestazioak finantzatzeko erabiltzen dira lanean dauden langileen kotizazioak. Organismo publiko batek kudeatzen du sistema.

**2. maila:** 2. mailako sistemak soldatapeko lanbidearen jardunarekin dute zerikusia. Hori dela eta, "lan sistemak" esaten zaie. Kapitalizazio eredu jarraitu ohi dute: enpresak eta langileek sortutako aurrezki inbertitu egiten da eta etorkizuneko pentsioak finantzatzeko erabiltzen da. Sarritan, heriotza eta elbarritasun arriskuen estaldura eskaintzen dute sistema horiek.

**3. maila:** Oro har, finantza erakundeekin sinatutako norbanako kontratuak dira.

## Sistema aldatzen duen lege aldaketa

Ez dugu legeei buruz hitz egin nahi, lege aldaketei buruz baizik, prestazioak bermatzeko dugun sistema formala aldatu ahal dutelako. Aurreikuspen sistemei buruzko legeria nahiko egonkorra izan da. 1941eko Mutualitateei

buruzko Legera, 1983ko BGAEei buruzko Euskal Legera eta 1987ko Pentsio Planei eta Fondoei buruzko Legera jotzen badugu, araudiak zenbait urtetan iraun duela ikusi ahal dugu, lehenengoetan, batez ere.



**Jesús Mª Larretxi**  
Idazkari nagusia

Pentsio Planei eta Fondoei buruzko Legea besteak baino gehiago aldatu da, baina orain dela gutxira arte, ez du funtsezko eragin onuragarriarik izan Elkarkidetzan.

### Sistema konplexua

Hain zuzen ere, estatuko zenbait legeren ondorioz, Elkarkidetzak prestazioak bermatzeko sistema ezin konplexuagoa ezarri behar izan zuenean, Pentsio Plana barik, Plan bat eratu behar izan genuen kide zen instituzio bakoitzeko (baterako sustapen sistemak ez zirelako aurreikusten; eta aurreikusi zirenean, ez zituztelako instituzio handiak kontuan hartzen), eta Aurreikuspen Erakundeak kudeatu eta aseguratutako Pentsio Fondo baten barruan egon behar zen.

Sistema konplexu hori partaideen, sindikatuen eta instituzioen konfiantzari esker joan da ondo baino hobeto. Izan ere, gure helburuaren atzean dauden estaldura xedeak lortzeko legezko betebeharra izan da eurentzat.

### Sustapen bateratuko planak


Orain, hori guztiori aldatu egin daiteke. Pentsio Planei eta Fondoei buruzko Legearen azken aldaketari esker, sustapen bateratuko planak eratu ahal dira lan sistemetan. Hori dela eta, planak bateratzeko prozesuari hasiera emateko garaia iritsi da, nonbait. Horren ondorioz, Gobernu Batzordea balorazioa egiten hasi da, hori lortuz gero, Elkarkidetzako egitura murriztu egingo litzatekeelako eta hasierahasieratik diseinatutako eredura hur-



bilduko ginatekeelako. Nolanahi ere, erakunde anitzeko sistema horrek irakatsi digunez, Batzarraren edo Kontrol Batzordearen (horrela esaten zaio teknikoki) bilera aukera ezin egoikiagoa da, kudeaketaren berri emateko, egitasmoak azaltzeko eta betibeti sortzen diren zailtasunei buruz hitz egiteko. Horregatik, gure ustez, urteko bilera horri eutsi behar diogu, Planak bateratzen badira ere.

### Aldaketa egin daiteke

Aldaketa egin daiteke, eta horrez gain, zenbait urtetan itxaroten egon garen beste aldaketa baten atarian gaude eta oso garrantzitsua izango da.



Orain arte, instituzio publikoek ezin zuten ekarpenik egin Pentsio Planak ez ziren aurreikuspen sistemetara. Hori dela eta, geureak eratu behar izan genituen. Horrela, bada, mutualistek ekarpenak egiten dituzte Aurreikuspen

## Azken aldaketari esker, sustapen bateratuko planak eratu ahal dira

## Planak bateratzeko prozesuari hasiera emateko garaia iritsi da, nonbait

## Legeak egiaztatzen duenez, gurea bezalako sistemetako pentsioak ez dira metagarriak

Erakundera, eta instituzioek, dagokien Planera; eta euren bidez, Pentsio Fondora egiten dira ekarpenak.

Gure iritziz, argi eta garbi zegoen arren, fondo publikoen bidez finantzatutako Erakundeetako prestazioak eta Gizarte Segurantzako pentsioa metagarriak diren ala ez zegoen zalantzan, eta horren ondorioz, pentsioaren gehieneko muga ere berbera den ala ez.

Esaten dugunez, betidanik adierazi dugu gurea bezalako Erakundeek ordaindutako pentsioak ez direla publikoak, aurreikuspen kuota soldata kontzeptua baino ez delako. Era berean, langilearen eskubidea da Erakundearen sartzen den unean bertan.

### Ez dira metagarriak

Azkenean, Legeak gure arrazoiak egiaztatu ditu. Lehenengo eta behin, instituzio publikoek ekarpenak egin ahal dituzte Mutualitateetara, eta guri dago-kigunez, Aurreikuspen Erakundeetara. Bigarrenez, legeak berariaz adierazten du gurea bezalako sistemen bidez ordaindutako pentsioak metagarriak ez direla.

Zenbait urtetan zehar, geure sistema legearen zailtasunetara egokitzen egon bagara ere, gaur egun, poztasunez esan dezakegu proposatutako helburuetako bat bete egin dugula.

Orain, geure estatutuak aldatu behar ditugu, hori guztiori bideratu ahal izateko. Horretarako, partaideek, sindikatuek eta instituzioek Planak Kontrolatzeko Batzordeen bitartez onartu beharko dute egokitzapen hori. Horren ondorioz, partaideen zein instituzioen ekarpen guztiak Aurreikuspen Erakundera joango lirateke.

Hemendik aurrera, lanean jarraituko dugu, BGAEn euskal sistema aldatzeko.

## Aldaketak

Abenduaren 27ko zerga, administrazio eta gizarte neurriei buruzko 24/2001 Legea.

Lege horrek Pentsio Planei eta Fondoei buruzko Legearen 4. artikulua aldatzen du, eta orain, honako hau dio a) letraren laugarren paragrafoan:

*“Zenbait enpresak edo erakundek batera sustatu ahal izango dute laneko pentsio plana, eta bertan, planak estali beharreko konpromisoak hartu ahal izango dituzte”.*

44/2002 Legea, azaroaren 22koa, Finantza Sistema Berritzeko Neurriei buruzkoa. Lege horrek Pentsio Planei eta Fondoei buruzko Legearen amaierako bigarren xedapena aldatzen du, eta honela geratzen da:

*“Amaierako bigarren xedapena. Administrazio, erakunde eta enpresa publikoen zerbitzura dauden langileen gizarte aurreikuspen osagarria. Administrazio publikoek, toki korporazioak barne, erakundeek, euren menpeko organismoek eta euren partaidetzako enpresek laneko pentsio planak sustatu eta ekarpenak egin ahal izango dituzte plan horietara eta aseguru kolektiboen kontratuetara (enpresako gizarte aurreikuspenetako mutualitateek gauzatutakoak barne), Lege honen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera. Horrela, bada, estatutuetako arau administratiboek araututako Lege honen 8.6. artikuluko arriskuekin zerikusia duten pentsioengatiko konpromisoak edo betebeharrak bete ahal izango dituzte, funtzionarioei edo langileei edo zerbitzu langileei dagokienez.*

*Langileen gizarte aurreikuspen osagarria finantzatzeko eta antolatzeko, instituzioek edo enpresek duten aurrekontuari kalterik egin gabe beteko da aurreko guztia. Era berean, ekarpen horiek alde aurretik beharko litzaketen arau eta administrazio arloko ustezko baimenak ere hartu beharko dira kontuan.*

*Lege honen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, pentsio planen edo aseguru kolektiboen kontratuen bidez ordaindutako prestazioak ez dira pentsio publikoak izango eta ez dira kontuan hartuko hasierako ezarpena mugatu edo pentsio publikoen gehieneko zenbatekoa ezartzeko orduan.”*

## Planen gaur egungo egoera

Gaur egungo egoera konplexua da oso, azaroko aldaketara arteko indarreko legezko premien ondorioz.

Gaur egun, instituzioen kuoten ekarpena Pentsio Fondora doa; gizarte alderdiaren kuotak, ordea, Aurreikuspen Erakundera.

443 Pentsio Plan ditugu Aurreikuspen Erakundeak kudeatu eta aseguratutako Pentsio Fondoan.

Horrez gain, Fondoaren Kontrolatzeko Batzordea dugu, eta planetako milla ehundik gora ordezkari eta Fondoaren Batzorde Beterazleak osatzen dute.

Bestetik, Borondatezko Aurreikuspenetako Erakundeak Batzar Nagusia du, eta 48 ordezkari eta Gobernu Batzordeak osatzen dute.

## Legea aldatu ondoren sortutako ustezko egoera

Lege berriko aldaketen ondorioz, egoera aldatu egiten da funtsean. Ekarpen guztiak BGAEn doaz. Horrez gain, aurreko egitura guztia murriztu egin ahal denez, antolamendua ez litzateke izango hain konplexua, eta azkarra izango litzateke, erabakiak hartu eta barne abia zehazteko orduan.

Legearen aldaketari esker, Aurreikuspen Erakundeak kudeatu eta aseguratutako Fondoan egon daiteke Pentsio Plana. Beraz, Plana Kontrolatzeko Batzordea eta Pentsio Fondoaren Kontrolatzeko Batzordea berbera izango litzateke.

Fondoko partaidetzako batzarra (eraketa berbera izango luke), Aurreikuspen Erakundearen Batzar Nagusia eta Aurreikuspen Erakundearen Gobernu Batzordea geratuko lirateke.

Azken batean, plan guztiak bateratuz gero, gobernu organoak egituratu eta premia berrietara egokitu ahal dira.